

BEZEROEKIN HARREMANAK

Bezeroak erakartzeko eta aplikazioaren erabileran mantentzeko, ezinbestekoa da haiengan segurtasuna eta motibazioa sortzea. Dirua irabazteko aukera eskaintzen duen aplikazio honek argi eta garbi adieraziko du zenbat irabazi dezaketen erabiltzaileek beren baliabideak saltzerakoan. Errealitatezko adibideak eta arrakasta istorioak erabiliz, beste batzuek aplikazioarekin zer lortu duten erakutsiko dugu, bezeroen konfiantza lortzeko. Hasieratik, gure bezeroekin erraztasuna eta azkartasuna azpimarratuko ditugu: bai kontratatzeko eta saltzeko azkartasuna, baita diru sarrerak lortzeko erraztasuna ere. Gainera, emango ditugun hasierako pizgarriak eta lehen salmenten trukeko bonuak erakargarriak izango dira.

Erabiltzaileek aplikazioa luzaroan erabiltzeko, esperientzia erraza eta aberasgarria eskaintzea funtsezkoa izango da. Fideltasun-programa bat abian jarriko dugu, erabiltzaile aktiboentzat onurak eskainiz eta motibazioa handituz. Era berean, salmenta-prozesuari buruzko aholkuak eta irakaskuntza-materialak gehituko ditugu, bezeroaren erraztasunerako.

Komunitate sendo bat sortzea ere garrantzitsua da; erabiltzaileek beren esperientziak partekatzeko eta elkarren artean laguntzeko aukera izateak haien konpromisoa areagotuko du. Promozio eksklusiboak eta salmenta-bolumen handiko erabiltzaileentzako sariak eskainiko ditugu, eta horrek aktibo mantenduko ditu gure erabiltzaileak. Azkenik, eguneraketa erregularrak eta erabilerraztasuna hobetzen duten hobekuntzak aplikatuko ditugu, erabiltzaileen konfiantza eta leialtasuna mantentzeko.

